

I K A S T A R O A

# AITATASUNA:

maskulinitate tradizionala eraldatzeko aukera



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA  
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA  
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,  
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



# AITATASUNA:

maskulinitate tradizionala eraldatzeko aukera

 **Noiz:**  
2026ko martxoaren  
16an eta 23an

 **Non:**  
Haur, Nerabe eta Gazteen Euskal Behatokia  
Uriortu kalea 11, behea - Bilbo

 **Ikasle-kopurua:** 20

 **Hizkuntza:** gaztelera  
*Irakasleak euskararen  
erabilera sustatuko du, eta  
batzuetan erabiliko du.  
Dena den, **bai euskara, bai  
gaztelera erabili ahal  
izango dute partaideek.***

 **Ordutegia:**  
9:00 a 14:00

 **Izena emateko epea:**  
otsailaren 17tik 26ra

**Izena emateko:**

[www.gaztebehatokia.euskadi.eus](http://www.gaztebehatokia.euskadi.eus)

## “ Helburu orokorra:

Hausnarketa kritikoa lantzea, sexismoak eta maskulinitasunaren eredu tradizionalak haziera gauzatzen duten gizonengan duen eraginari buruz. Hausnarketa honek eraldaketa pertsonala bultzatzeko balio behar du, maskulinitate sexista eta patriarkalari dagozkion ideiak eta jokabideak deseraikitzean oinarritua.

## Metodologia:

Bizipen- eta hausnarketa-tailer partekatu bat da, eta irakasleak honako hauen bidez gidatuko du taldea: ohiko eraikuntza maskulinoaren ikuspegitik aitatasunari buruzko testuinguru teorikoa; nork bere buruari gogoeta egitera bultzatzen duten galderak, eta *entzuketa-zirkulua*.

Horregatik, *teknika aktiboak* erabiliko ditu: eztabaida gidatua, eztabaida, azpitaldeak, ikus-entzunezko eta idatzizko materiala, norberaren hausnarketa.

Metodologia hau honako hauetan oinarritzen da:

- Parte-hartzea eta barneratzea, pertsona bakoitzaren esku-hartzea erraztuz.
- Malgutasuna, taldearen erritmora eta ezaugarrietara egokituta, bai eta taldearen barruko premia indibidualetara ere.

Oinarrian dagoen sustraia *talde-lana* da, taldea gaitzeko, garapen pertsonalerako eta eraldaketa sozialerako funtsezko tresnatzat hartzen baitugu. Taldeko ikaskuntzak errealitatea begiratzeko eta ulertzeko modua aberasten du, eta kritikarako gaitasuna sustatzen duten espazioak eraikitzen ditu. Beraz, esku hartzeko eredu pribilegiatua da.

# ≡ Edukiak:

## 1- SOZIALIZAZIOA EREDU MASKULINO TRADIZIONALEAN

- Maskulinitate hegemoniko eta patriarkalaren eredu tradizionalaren oinarritzko ezaugarriak.
- Eredu horretako sozializazio-estrategia eta -mekanismo orokorrak.
- Eredu horretan sozializatutako gizonen bizitzako inpaktu baldintzatzaile orokorretako batzuk.
- Ezkutuko curriculum sexista eta haren garapenaren etapak haurtzaroan eta nerabezaroan.

## 2- HAZKUNTZAREN ERRONKAK MASKULINITATEAREN IKUSPEGITIK

- Haztea, gizonek genero maskulino tradizionalaren eraikuntza berrikusteko aukera gisa.
- Hazkuntzan diharduten gizonen ohiko erronkei heltzea, genero-ikuspegitik.
- Genero-sozializazio hori haur eta nerabe bihurtzeko konpromisoa duen hazkuntza ez-sexista lortzeko bidean aurrera egitea.
- Entzuketa-zirkulua, hazieraren sentimenduak eta zailtasunak kudeatzeko laguntza-tresna gisa.

## **Norentzat:**

Haurrekin, nerabeekin eta gazteekin modu profesionalean edo borondatezkoan lan egiten duten gizonak.

## **Irakaslea:**

### **Juan Manuel Feito Guerrero**

Gizarte hezitzailea, 'Piper Txuriak', berdintasunaren aldeko gizon elkarteko kidea.

## **Antolatzailea:**

HAUR, NERABE ETA GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA > Gazteria eta Emantzipazio  
Zuzendaritza > Ongizatea, Gazteria eta Erronka demogra ikoa Saila > Eusko  
Jaurlaritza.

☎ 94 403 16 45

✉ [gaztebehatokia@euskadi.eus](mailto:gaztebehatokia@euskadi.eus)